

2021/04/19

HAUR DANBORRADA

APIRILAREN 27AN HAUR DANBORRADA OSPATUKO DUGU HAUR HEZKUNTZAN

Apirilaren 27an, San Prudentzio bezperan, Laudioko Haur Danborrada ezin izango dugu ohi bezala ospatu.

Aurtengoan berriz, iaz ez bezala, Ikastolan egongo gara egun horietan eta Haur Danborrada gelaz gela ospatuko dugu.

Haur Hezkuntza etapan, 0 urtetik 6 urtera, ikasleek etxetik ekarritako danborrekin entseguak egiten hasi gara eta 2. zikloan, 3, 4 eta 5 urtekoen gelatan txanoak prestatuko ditugu.

KAMISETA ZURIA

Jai egunean, apirilaren 27an, ikasleak kamiseta zuriarekin etorri beharko dira Ikastolara eta gelaz gela danborrada joko dugu.

Egunean bertan ekimenaren berri emango dugu Ikastolako web gunera igoko dugun bideo eta argazki sortarekin.

